



NAZIOARTEKO EGUBERRI TXAPELKETA FORU ALDUNDIA SARI NAGUSIA

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN - 2014EKO ABENDUAREN 29AN

2014ko LEHIAKETA ARAUDIA

1.- Data: 2014ko abenduak 29

2.- Ordua: Sailkapenak 10:00tan eta finalak 18:00tan

Antolaketak, data eta ordutegia aldatzeko aukera izango du, telebistako emankizunaren ordutegiagatik. Honela bada aldaketa igerilari eta talde guztiei jakinaraziko zaie.

3.- Tokia: Donostia (Paco Yoldi igerilekua)

4.- Igerilekua: 50 metroko, 8 kaleko igerilekua eta kronometraje elektronikoa.

5.- PROBEN EGITARUA:

- | | |
|---------------------------------|----------------------------------|
| 1. 100 m Tximeleta Gizonezkoak | 11. 100 m Bizkar Gizonezkoak |
| 2. 100 m Tximeleta Emakumezkoak | 12. 100 m Bizkar Emakumezkoak |
| 3. 50 m Bizkar Gizonezkoak | 13. 50 m Bular Gizonezkoak |
| 4. 50 m Bizkar Emakumezkoak | 14. 50 m Bular Emakumezkoak |
| 5. 100 m Bular Gizonezkoak | 15. 100 m Libre Gizonezkoak |
| 6. 100 m Bular Emakumezkoak | 16. 100 m Libre Emakumezkoak |
| 7. 50 m Libre Gizonezkoak | 17. 200 m Estiloak Gizonezkoak |
| 8. 50 m Libre Emakumezkoak | 18. 200 m Estiloak Emakumezkoak |
| 9. 50 m Tximeleta Gizonezkoak | 19. 50 m Libre Giz. Ezingabetuak |
| 10. 50 m Tximeleta Emakumezkoak | 20. 50m Libre Em. Ezingabetuak |

6.- PARTAKIDETZA:

6.1- KATEGORIAK: Kategoria bakarra: ABSOLUTOA

6.2.- Partaidetza RFENan izena emanda dauden talderen batekin lizentzia federatua duen edozein igerilariarentzako irekia dago, baita ere beren Federazioek ezarritako arauak betetzen dituzten igerilari atzerritarrentzat ere.

6.3.- Txapelketan parte hartuko duten igerilariak gonbidapenez aukeratuak izango dira.





NAZIOARTEKO EGUBERRI TXAPELKETA FORU ALDUNDIA SARI NAGUSIA

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN - 2014EKO ABENDUAREN 29AN

Izen-emateak 50 metrotako probetan 5 serie, 100 metrotakoetan 4 serie eta 200 metrotako proban 3 serie osatu arte onartuko dira.

6.4.- Talde bakoitzak nahi adina igerilari aurkez ditzake ditu proba bakoitzean, beti ere proba horretako gutxieneko denboraren jabe badira.

6.5.- Igerilari bakoitzak, gehienez ere, banakako hiru probatan parte hartu ahal izango du.

6.6.- GIFek serieen behin-behineko zerrenda argitaratuko du bere web orrian (www.igeri.net/) abenduak 22an. Bertan akatsik antzeman ezkerro, GIFen adieraziko dira abenduak 23ko, astearteko, 12:00rak baino lehen.

7.- GUTXIENEOAK (* taula dokumentuaren azken orrian):

2013ko azaroaren 1etik aurrera lortuak eta 50 metroko igerilekua eta kronometraje elektronikoa dagozkienak. Gutxieneko hauek erreferentziakoak dira Euskadi eta Nafarroako igerilariak ez direnentzat.

8.- IZEN EMATEAK:

8.1.- Izen emateak ISIS programaren bidez egingo dira.

Nazioarteko klubak kasuan izen emateak lehiaketako izen-emate formularioa bere atal guztietan bete eta posta elektronikoz [easo@natacioneaso.com](mailto: easo@natacioneaso.com) helbidera bidaliz burutuko dute.

8.2.- Izen-emate epea: abenduaren 19ko (ostirala) eguerdiko 12:00etan bukatuko da. Ondoren jasotako izen-emateak ez dira onartuko.

8.3.- Antolatzaileek parte hartzeko onartuak izan diren igerilariak zeintzuk diren adieraziko die klubei eta halaber zeintzuk ezin duten parte hartu proba bakoitzerako ezarritako serie kopuruaren barnean ez egoteagatik. Antolatzaileek serie kopuru aldatzeko eskubidea beretzat jasotzen du.

9.- LEHIAKETAREN FORMULA

9.1.- Serieak marka bidez osatuko dira, jaiotze data kontutan izan gabe.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián





NAZIOARTEKO EGUBERRI TXAPELKETA FORU ALDUNDIA SARI NAGUSIA

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN - 2014EKO ABENDUAREN 29AN

9.2.- Kanporaketa eta finaletako sistema erabiliko da.

9.3.- Proba bakoitzaren arautegiari dagokionez (estiloa, distantzia, etab.) proba guztietan RFENek lehiaketarako duen arautegia jarraituko da.

10.- BAJAK

10.1.- Bajak idatziz eta inprimaki ofizialaren bidez osatu behar dira. Hauek lehiaketako idazkaritzara eramango dira, lehiaketa hasi baina ordu erdi lehenago beranduenera.

10.2.- Bajak taldeko entrenatzaile edo delegatuak eramango ditu, (pertsonek hau lehiaketa horretarako baimendua egon behar da), serieak, igerilariak eta kaleak azalduz.

10.3.- Igerilari bat igeri egitera azaltzen ez bada, eta bajarik eman ez bazaio, aurreko atalean azaldutako eran, igerilari honek jardunaldi osoan ezingo du igeri egin eta ezin izango da ordezkatu.

11.- SAILKAPEN ETA PUNTUAKETA

11.1.- Bakarkako sailkapen bat burutuko da proba bakoitzeko.

11.2.- Bakarkako gizonezko zein emakumezkoetan sailkapen bat egingo da, "FINA Taula" {1000 x (munduko errekorra/egindako denbora)³} lortutako puntuen arabera igerilari bakoitzaren probarik onena kontuan hartuz. Honetarako finaletako emaitzak bakarrik hartuko dira kontutan.

12.- GARAIKURRAK ETA SARIAK

12.1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko garaikurra emango zaie FINA taularen baitan sailkatutako hiru lehen igerilariei, bai emakumezkoari bai gizonezkoari.

12.2.- Txapela emango zaio FINA taularen baitan lehen sailkatuari, bai emakumezkoari bai gizonezkoari.

12.3.- Diru saria izango dute FINA taularen arabera sailkatutako hiru lehen igerilariek,





NAZIOARTEKO EGUBERRI TXAPELKETA FORU ALDUNDIA SARI NAGUSIA

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN - 2014EKO ABENDUAREN 29AN

bai emakumezkoek bai gizonezkoek, ondorengo diru sariak jasoko dituzte:

- 1. Sailkatua 1500€**
- 2. Sailkatua 1000€**
- 3. Sailkatua 500€**

12.4.- Donostia Hiria garaikurra jasoko du FINA taularen baitan puntu gehien lortzen dituen igerilariak.

13.- ZIGOR ETA AZKEN AIPAMENA

13.1.- EIFk eta GIFk edozein zigor jarri ahal izango du frogaturiko edozein Irregularitasunen aurrean, bai gutxienekoen inguruan zein beste edozein arlotan.

13.2.- EIFk lehiaketa honetarako lehiaketa zuzendari bat izendatuko du, bertako aginte nagusia izango dena lehiaketaren antolaketan eta lehenengo epaileari ez dagozkion beste eginkizunetan.

13.3 .- Erregelamendu honetan aurreikusten ez dena EIFko lehiaketetako araudian azaltzen denarenarekin beteko da, eta honekin nahikoa izango ez balitz RFENren lehiaketei buruzko araudia erabiliko litzateke.

*** Gutxieneko denboren taula**

Gizonezkoak	Proba	Emakumezkoak
0:25,50	50m libre	0:28,80
0:55,70	100m libre	1:02,10
0:29,50	50m bizkar	0:33,30
1:03,30	100m bizkar	1:10,90
0:31,90	50m bular	0:36,50
1:10,30	100m bular	1:19,40
0:27,40	50m tximeleta	0:31,10
1:00,50	100m tximeleta	1:08,40
2:17,00	200m estiloak	2:32,80



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

